



HAUR HEZKUNTZA ETAPA

IKASTURTE HASIERAKO ORIENTABIDEAK

2020-2021



AURKIBIDEA

0. SARRERA	2
1.- EGOERAREN DIAGNOSIA	2
2.- INFORMAZIOA/FORMAZIOA	3
3.- HEZITZAILEEK INFORMAZIOA JASO.	4
4.- LAGUNTZA ESKAINI ETA EMAN.	5
5.- ESPAZIOAK.	6
6.- ZIRKULAZIOA.	9
7.- GARBITASUNA	10
8.- ORDUTEGIA.	11
9.- HAUR TALDEAK	12
10.- LAGUNTZA ESKE.	12
11.-LOA ETA DESKANTSUA	13
12.-HEZITZAILE TALDEAREN ETA HEZITZAILE BERAREN ZAINZA.	14
13.-IRAILEAN EDOTA KONFINAMENDUTIK ITZULTZEAN EGINBEHARREKOAK.	15
14.- HEZITZAILE TALDEAREN ESKU-HARTZE ESTILOA.	16
15.- EBALUAZIOA (PROZESUAREN BEHAKETA BEZALA).	16
16.- ESKOLARA PRESENTZIALKI ETORTZEA	17
17.- KONFINAMENDU SALBUESPEN EGOERAN EGOTEA.	17

0. SARRERA

Pasatu berri dugun ikasturtea aintzat hartuta, ezin dugu 2020-2021 ikasturtea betiko eran antolatu. Eredu ezberdinak kontuan hartuko ditugu. Batetik, Osasun Sailak emango dizkigun jarraibideak beteko ditugu aldi oro. Bestetik, komunitatearen eta batez ere, haurren (eta bera inguratzen duen familiaren) ongizate fisiko eta psikikoa izango dugu ardatza eta noski, haurren garapen osoa eta orekatua. Honen guztiaren arabera antolatuko dugu ikasturtea.

Irailean zer gertatuko den aurreikustea da egun, egin behar duguna. Beraz, hiru egoera ezberdinekin egin dezakegu topo (salbuespen egoera batean egotea, albuespen egoera batean egotea baina baimen batzuekin edo inongo albuespen neurririk gabe egotea), bai irailean, bai eta datorren ikasturtean zehar ere. Hori horrela, egoera horiek aintzakotzat hartu, irudikatu eta diseinatzeak gerta daitezkeenaren aurrean planifikatuta eta aurreikusita izateak lagunduko digu.

Betikoak ez du balio, eta horregatik behar bada orain arte pentsa ezina izan direnak kontuan hartzen hasi behar gara. Antolamendu berri honetarako "a priori" ezer ezin dugu baztertu, eta toki batean baliagarri gertatzen dena, beste baten ezinezkoa izango da. Hori da tokatzen zaiguna, sormena aske utzi, begiak eta belarriak zabalik jarri, eta daukagunarekin aurrera egin haurrentzat eta bera inguratzen duen guztiarentzat hoberen eta aberatsenen den eran.

Ondorengo aspektuak garatzeko hainbat zerbitzu eskuragarri izango ditu, besteak beste, Berritzeguneko aholkulariaren eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskariaren laguntza.

1.- EGOERAREN DIAGNOSIA

1.1. HAURREN DIAGNOSIA.

Haurren diagnostika egitean bi eremutan oharitu behar da: konfinamendu egoerak eragindakoak eta arriskuan egon daitezkeenak.

Konfinamendu egoerak eragindakoa antzemateko "Hezitzaileek informazioa jaso" ataleko informazioaz baliatuko gara.

Ordea, haurren berriazko arrisku dutenak antzemateko, honako sistema immunologikoa ahula edo gaixotasun kronikoa dutenengan jarriko da begirada. Adibidez:

- Kardiopatiak.
- Diabetesa.
- Minbizia.



- Gaixotasun autoinmuneak.
- Patologia anizkunak.
- Gaixotasun gutxienak (arraroak).
- (...)

Badira ere, kontuan hartu behar diren beste talde sentibera batzuk:

- Osasun mentaleko gaixotasuna dutenak.
- Psiko-emozionalki sentiberak direnak.
- Azaldura (alterazio) genetikoak dituztenak.
- Zentzumenen bat kaltetua dutenak: gorrak,itsuak...
- Desgaitasun motorra larria dutenak.
- Gizarte-bazterketa arriskuan dauden haurrak.

1.2. FAMILIEN EGOEREN DIAGNOSIA

Hezitzaile bakoitzak bere tutoretzako haur bakoitzaren familiaren egoera ezagutu behar du. Horretarako, irailaren 1ean beraiekin, eta banan-banan, kontaktuan jarriko gara daukagun informazioa kontrastatzeko edo informazio gaurkotua eta zuzena jasotzeko. Zertaz galdetu edo zer informazio den egokia jakitea ikus “Hezitzaileek informazio jaso” eta “Laguntza eskaini eta eman” atalak.

2.- INFORMAZIOA/FORMAZIOA

Ahalik eta informaziorik berariazkoena eta zehatzena ematen saiatuko gara. Informazio hori sasoz helaraziko dugu, eta bai ohiko bai ez-ohiko komunikazio bideak erabiliko dira. Gainera, informazioa pertsonalizatua izango da: familientzat eta haurrentzat. Eremu bakoitzera hurrengo zehaztapenak egingo dira: zer informazio emango zaie, noiz emango zaie informazioa, nork edo nortzuk emango die informazio eta nola emango da informazioa.

2.1. FAMILIEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA.

- 2.1.1. Eskolaratzeko irizpideak.
- 2.1.2. Eskolaratzeko Prebentziorako gomendio orokorrak.
- 2.1.3. Eskolako zirkulazioa.
- 2.1.4. Irteera-sarrerak egiteko era eta ordutegia.
- 2.1.5. Objektu komun erabilerarako jarraibideak.
- 2.1.6. Esku garbiketa eta desinfekzioa.



2.2. HAURREI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA.

- 2.2.1. Lasaitasuna
- 2.2.2. Agurra
- 2.2.3. Solasaldiak probokatu beraien irizpideak kontutan hartututa, sarrera-irteera arauak eta zirkulazio era argitzeko.
- 2.2.4. Esku garbiketarako momentua
- 2.2.5. Sarrera-irteera arauak eta zirkulazio era.
- 2.2.6. Esku garbiketarako momentuak eta era.

3.- HEZITZAILEEK INFORMAZIOA JASO.

Haurraren eta familiaren bizipenen eta egoeraren berri jasoko du haur bakoitzaren hezitzaile tutoreak (2019-2020 ikasturteko tutoreak). Hori posible ez den kasuetan tentu handiz aukeratuko da nor izango den familiekin kontaktuan jarriko dena, eta ahal den neurrian, familian ezaguna eta konfiantzazkoa bada, hobe (aurreko ikasturteren batean tutore izandakoa, Zuzendaritza taldeko bat, Irakasle aholkularia...).

Galdetu eta jakin nahi dena idatzita egongo da, baina ez da itaunketa izango burutuko dena. Batez ere, familiari lasaitasunez eta arretaz entzungo zaio. Momentu bat baino gehiago behar badira, hala egingo da. Familiaren kontaktatu baino lehen, argi izan behar da zer galdetu. Egokiak diren aspektuak kontuan hartuko ditugu beharrezko informazioa jasotzerakoan.

Azken baten, haurra eta bere familiak COVID-19 egoerak zer eragin izan duen antzematea da helburua, eta hortik abiatuz, ikasturte berriari ekitea. Horregatik, berezko garrantzia jarriko zaio konfinamenduaren bizipenei, nola sentitu izan diren eta nola dauden. Kontuan izan behar da egoerak anizkunak izan direla eta bakoitzak era bakarrean eta pertsonalean bizi izan duela; ezin da ezer iruditu edo imajinatu. Egoera posible hauek kontuan izango dira:

Familiak egoera nola bizi izan du.	Oso ondo, ondo, normal, alarman, nahasi, triste...
Haurrak egoera nola bizi izan du.	Oso ondo, ondo, normal, alarman, nahasi, triste...
Egoera nolakoa izan da.	Aberatsa (gauza berriak aurkitu dira), ona (lasaia), neketsua, gogorra, jasanezina...



Haurren lotura (atxikimendua/ binkuloa) nola dago.	Osasuntsu dago, beti bezala dago, krisian dago, hauskor dago...
Haurrak egoera...	Ulertu du, oraindik ez du ulertu...
Aldaketarik egon al da.	Heriotza, gaixotasun larria, banaketa, jaiotza, langabezia, laneratzea...
Nola ikusten dute ikasturte hasiera.	Ilusioz, lasai, arduraz, beldurrez, zalantzaz, ...
Oharrak.	

4.-LAGUNTZA ESKAINI ETA EMAN.

Egungo egoeran eskolako hezitzaile taldeak eta pertsonalak familiekiko eta haurrarekiko arreta erakutsi behar du, eta familiei laguntza zuzena eskaini eta emateko bitarteko guztiak jarri behar ditu. Hau guztia haurren mesedetan egingo da, familia ondo ez badago, haurra ere ez dago ondo. Familia laguntzeko eta babesteko unea da.

Gertatutakoaren errelatoa eraiki behar da era pertsonalean eta era kolektiboan, eta hori izango da ikasturte hasierako lehen hilabeteko zereginen nagusia. Horrek itxura eta egitura ezberdina izango du kasuan kasu, eskolako eta herriko ezaugarri eta baldintzei erantzungo dielarik. Horretarako ezin bestekoa da honako informazioa ezagutzea:

Nola zaude.	
Nola dago haurra.	
Zerk arduratzen zaitu.	
Zer behar duzu.	



Zertan lagundu al dezaket.	
Oharrak.	

Hasiera-hasieratik eta kurtso osoan zehar, hurrei beraien errelatoa egiten lagunduko zaie. Horretarako kontuan hartuko dira:

- Haurrek aire libre "askatasuna" behar dute, giro eta ingurune naturala. Etxeko horma barruan denbora gehiegi egon dira eta naturaz blai egitea komeni da.
- Beraien bizipenen errelatoa egiteko gela bezain aproposa beste toki batzuk dira (elizpea, frontoia, plaza, eguraldiak utziz gero zuhaitz baten gerizpea...).
- Haurrak gertatu dena ulertu behar du. Izan daiteke batzuk errelatoa egina izatea, baina gehiengoak ez du izango. Egina duenarentzat ere saiakera hau ona da.
- Gertatutakoaren berreraiketa egiten lagundu behar zaie. Argazkiak ekarri, bizipenak adierazi, ordena kronologikoan jarri...
- Azkenik, adiskidetasuna berreraikitzen lagundu eta ahalbidetuko zaie.
- Berrito antzerako zerbait gerta daitekeela ere aurreikusiko da.

Oharra: prozesu honek familiari zertan eta nola lagundu zehazteko balioko du.

5.ESPAZIOAK.

Ezer adostu baino lehen, garbi utzi nahi dugu hurrei ezin zaiela kontaktua izatea debekatu ez eta ezer ez ikutzeko aukera printzioz, kendu. Edonola ere, osasun egoera kontuan hartuta printzipio gisa, haurren taldeak ez nahastea edo beste taldeekin ez elkartzea lehenesten da eta talde bakoitzak erabiliko dituen espazio fisikoak (kanpokoak eta barnekoak) identifikatuta eta esleituta izatea.

Taldearekin elkartzeko lekuak ere ez du zertan eskola barruko gela izan behar. Espazioak taldeei esleitzeko orduan eskola espazio guztiak hartuko ditugu kontuan (kanpo zein barne instalazioak), dena da eskola espazioa eta beraz, apendizai ahalbidetu eta gauzatzeko gunea. Kanpo espazioa lehenetsiko dugu ahal bada, eskola barnekoa zein eskolaz kanpoko.

Kanpo espazioak haurraren garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzeko espazio aproposa eta ezin hobea dugu. Baldin eta aurrerago, konfinamenduan egon beharko balute, kanpo espazioan bititakoak lagunduko die barruan egoten.

Eskola bakoitzak du bere errealitatea hasieran aipatu dugun bezalaxe. Komeni da, adierazi den bezala, haurrak leku batetik bestera ez ibiltzea. Kanpo espazioa behin aukeratuta, denbora edota egunak bertan igarotzea haurraren jolaserako eta ongizaterako aproposa da. Aukeraketa egitean, kontuan izan eguraldia eta beharko duzuen babesak (eguzki, euri edota haizeaz...).

Barne espazioetan egon behar bada ezinbestean, zentzumenetatik abiatutako espazioak lehenetsi. Aurrez aipaturiko bizipenak; espazioan material naturalak, bizipen propioak non arakatzea, manipulatzeko, esploratzea edota esperimendatzeko ahalbidetuko dituztenak jarriko ditugu barruko espazio horietan. Segurtasun afektiboa, zaintza bere osotasunean, bizipenak, zentzumenak, garapenerako autonomia, sormena, ekintzaitasuna, kritikotasuna, taldekidea, taldekide aktiboa, lengoaiak, komunikazioa eta hartu- eman pertsonalak lehenetsiko ditugu.

Hau horrela, espazio hauetan bertan gauzatzen, gertatzen, lantzen eta ahalbidetzen diren elementuak anitzak dira eta horien jabe ere izan behar dugu inguruneak diseinatu eta eskaintzerakoan.

Espazio bakoitza talde jakin bati esleituta egongo da, eta egungo egoera hau mantentzen den bitartean erabilpena eta harremanak taldera mugatuta egongo dira. Talde nahasketak ekidituko dira eta taldeak espazioz aldaketa behar badu, higiene, garbitasun eta desinfekzio neurri guztiak bete ondoren egingo da. Aldaketa inoiz ere ez da egunean zehar emango, egun batetik besterakoa izango da gutxienez, eta beti aurretiaz planifikatua eta aipaturiko neurri guztiak bete ondoren.

5.1. BABESTEN DUEN ESPAZIOA: Espazioak haurrak bizi dituen egoerak bildu behar ditu, hau da, taldean egoteko beharra bezain garrantzitsua da bakarrik egoteko duen beharra. Zaindutako espazioa, goxoa eta babesak emango duena.

5.2. HARREMANEN ESPAZIOA: Eskaintzen den espazioa lientzo zuri bat izango da, pertsonak betetzen dutena, bertaratzen direnek emango diote bizia. Elkarren arteko harremanen ondorioz koloreztatuko den espazioa. Harreman ezberdinen ispilu izango dena eta ezberdintasun guztiak batuko dituen.

5.3. GIZARTE ESPAZIOA: Eskola gizartearen parte den heinean, gizartea sartzen utzi behar du baina gizartera ere atera behar da. Beraz, espazioan kanpokoak barrura sartzeko lekua izan behar du eta barrutik kanpora ateratzeko bideak ere egin behar dira.

5.4. ADIERAZPEN EZBERDINEN ESPAZIOA: Pertsonak adierazteko bide ezberdinak ditu hitzezkoak gain. Eskolako espazioak beste adierazpen mota hauei leku egin behar die, gorputzari, arteari, mugimenduari,... Pertsonak osotasunean betetzen ditu espazioak

eta espazioak osotasun horiek eskaini behar dizkio gunez gune: Pertsona da espazioa beteko duen elementurik garrantzitsua eta espazioak bidea erraztu behar dio haurraren protagonismoa indartzeko.

5.5. NORBANAKOAREN ESPAZIOA: Taldeko partaide izateko lehenbizi norbanakoaren kontzientzia bizi behar da. Horretarako espazioak antolaketa eta denboralizazio ezberdinak ahalbidetu behar ditu. Norbanakoaren beharra asetzeak ez du ondokoarena oztopatu behar, beraz, espazioak irekiak izanik ere, ondo zehaztu eta mugatuak behar dute izan.

5.6. KOMUNITATE ESPAZIOA: Eskola komunitate bat izanik, espazioa komunitate osoak bete behar du, eta ez komunitate bakoitzak bere gunea izan. Denek izan behar dute denean parte-hartzeko eskubide eta aukera.

5.7. APRENDIZAI ESPAZIOA: Eskola aprendizai gune izan behar du, edukien aprendizai espazioa izateaz gain, erlazio, kultura, baloreena ere izan behar du. Hori horrela izanik, espazio aske eta malguak izan behar dira.

5.8. ZABALTZE ESPAZIOA: Haurren bizipenak isla izan behar dute eskolako guneetan (barne zein kanpo). Eskolan informazioa jasotzeaz gain eta informazioa aztertzeaz gain, informazioa sortu eta zabaldu behar da: egiten denarenaz, garatu denarenaz, bizi denarenaz,... Hortaz, zabaltze guneak aberatsak eta anitzak behar dute izan.

5.9. SINPLETASUNAREN ESPAZIOA: Eskolako bizitza konplexua eta anitza izanik, berau jasotzen duen espazioa sinplea eta garbia izatea lagungarri da. Kaosetik ihesi, espazioak lasaitasuna eta zentzua eskaini behar die hurrei.

Haurrak egokitu zaion espazioan mugimendurako askatasun osoa izan behar du haren ekimena eta autonomia garatzeko. Hau da, espazioaren antolaketa egokia izan behar du haurren beharrezkoak asetzeko, umeei zer egin nahi duten, nola egin nahi duten etaz einekin egin nahi duten hautatzen uzteko.

Guzti hau zainduz gero, heldua aske geratzen da haurren ibilbidean bidaide izateko. Espazioa eta materiala antolatua dugun moduak, bere hitza bigarren lekuan jartzen du eta haurraren inizatibari atea irekitzen zaio. Horrela, eskola inklusiboa bermatzeaz gain, bertako haurren garapen osoa eta orekatua ahalbidetzen lagunduko dugu, haurra bera izanik bere aprendizai prozesuaren jabe.

6. ZIRKULAZIOA.

Zirkulazio hitzak eskola barruan zein kanpoan egingo diren mugimenduari egiten dio erreferentzia. Arestian aipatu bezala hurrei beraien arteko kontaktu fisikoa izatea debekatzea ezinezkoa da. Hala ere, ezinbestekoa da hezitzaileak hurrekin batera beharrezko higiene neurriak lantzea eta praktikan ipintzea errutina gisa barneratu arte. Gainera haurraren garapenean funtsezkoak diren aspektuak (gorputzaren ezagutza, jolasa, mugimendua eta esperimentazioa) besteekin elkarrekintzan eta elkar eraginean garatzen dira, eta hori bermatu egin behar da, Haur Hezkuntzaren muina delako.

Eskola eremuko zirkulazioa identifikatu eta ondo markatuta jarriko da, kasuan kasuko ezaugarriak eta baldintzak kontuan hartuta.

Kontuan hartu beharreko guneak:

a. **Eskola hesi barruko eremurako sarrera-irteera:**

- Sarrera-irteerako ate bat baino gehiago baldin badaude, sarrera toki batetik egingo da eta irteera beste batetik (Haur Hezkuntzakoentzat ahalik eta ibilbide errazena aukeratuko da), kasu honetan familiak jolastokiraino sar daitezke.
- Atea bakarra eta zabala bada, erdi-erdian hesiak edo zintak jarriko dira, eskuin aldetik sarrera egiteko eta bestetik irteera. Kasu honetan ere familiak jolastokiraino sartuko dira.
- Ate bakarra eta estua bada, sarrera eta irteera txandaka egingo da. Familiak ez dira jolastokira sartuko eta jarritako orduetan hezitzaileak atean hartu eta itzuliko dituzte haurrak.

Oharra: jolastokian edo eskola hesitik kanpo haur talde bakoitzaren tokia markatuta egongo da. Kasu guztietan, sarrera eta irteera momentuan eskolako atezaina balego bertan egongo da.

b. **Eskola barrurako sarrera-irteera:**

- Eskola eraikinean ate bat baino gehiago baldin badago, sarrera toki batetik egingo da eta irteera beste batetik (Haur Hezkuntzakoentzat ahalik eta ibilbide errazena aukeratuko da).
- Atea bakarra eta zabala bada, erdi-erdian hesiak edo zintak jarriko dira, eskuin aldetik sarrera egiteko eta bestetik irteera.
- Ate bakarra eta estua bada, sarrera eta irteera txandaka egingo da.

Oharra: Kasu guztietan, sarrera eta irteera momentuan eskolako norbait bertan egongo da.

- c. **Barruan pasiloetan joan-etorria zinta itsasgarriaz markatuko da.**
- d. **Komunerako joan-etorrietan berariazko arreta** (bigilantzia) jarriko da, batez ere, aurreko eta osteko esku garbiketan.
- e. **Jantokirako joan-etorrietan** ere berariazko arreta (bigilantzia) jarriko da, batez ere, aurreko eta osteko esku garbiketan (ez da hortz garbiketarik egingo).
- f. **Eskola hesitik kanpoko jardueretan**, honakoak kontuan hartuko dira:
 - Naturarako irteeretan ez dugu ohiko (betiko) neurrietatik aparteko neurririk behar. Kontu izan joan etorriko ibilbide horiek ez daitezela izan herritarren mugimendu handikoak.
 - Herri barruko ibilbideak egiteko, beraiek eta guk herrian mugitzeko ditugun arau eta neurri berberak kontuan hartuko dira.
 - Bisitaldien kasuan (baserrira, artisau batengana, baratzerara, animaliak ikustera...) ingurua ezagutzeko eta arakatzeko asmoa dutenez, joan etorriak oinez egiteko aprobetxa daitezke, eta horretarako udaltzaingoaren laguntza edo boluntariotzaren aukera arakatuko da.
 - Herriko beste toki batzuk itxiak zein estaliak erabiltzen direnean, kasuan kasuko neurriak hartuko dira lehenago aipatu diren orientabideak jarraituz.

7.-GARBITASUNA

Garbitasuna ezinbesteko eremua da. Bi alderdi bereziko dira. Bata, hurrekin batera egiten den garbiketa unea. Bestea, espazio, material etab.

Hurrekin egingo diren garbiketako esku-hartzeak, era errespetutsuan, goxoan eta alarmistatik at egingo da. Eskolan, pardel aldaketa, komuneko buelta, mukiak kentzea, botakaren inguruko jada dauden esku-hartze protokoloak mantenuko dira baldin eta haurren beharrak, errespetua, aukeratzeko aukera eta garapeneko autonomiaren araberakoak badira, hala ez balitz, protokoloak errebisatu eta haurren ongizatea eta errespetua bermatu behar dira.

Espazioak garbi egongo dira. Orain arte erabili ez dugun materiala erretiratu. Barne espazioan dagoen dena egunean garbitu daitekeena izatea komeni da. Espazio eta material guztiak garbituko dira haurrak etorri baino lehen. Aurrez programatu eta antolatuta izango dugu zein material aterako dugun egun bakoitzerako, zergatik, zertarako eta norentzat. Gogoratu, material naturalak lehenetsiko da.

Segurtasun- eta higie-neurriei dagokienez, jarraitu beharko da *“Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan CORONAVIRUSen (SARS-CoV-2) aurrean 2020-2021 ikasturtean jarduteko protokolo orokorra”*-n ezarritakoa.

8.-ORDUTEGIA.

Argi dago betikoa betiko eran ezin dela egin. Ordutegia eskola bakoitzaren baldintza eta ezaugarrietara moldatuko da. Eskolak ohiko ordutegia bere osotasunean egiteko aukerarik ez badu, lehentasunak jarri beharko dira. Egutegia eta ordutegia aldatzearen zergatiak ondo identifikatuko dira eta ondoren egutegi-ordutegi aldaketaren zertarakoa ere ondo zehaztuko da.

Arrazoi nagusi bat espazio falta izan daiteke, horren aurrean eta Haur Hezkuntzari dagokionez honelakoak kontuan izan:

- a. Haur Hezkuntzako umeak esku-hartze zuzena (presentziala) behar dute eta hori bermatu behar da.
- b. Momentu askotan eskolako gelak bezain aberatsak eskolaz kanpoko eremuak dira. Horrek, aukera berriak eskaintzea, tokiak arintzea, eta kutsadura arriskuak murriztea dakar.
- c. Egokitze prozesuari begirune berezia jarriko zaio. Aurten 2 urteko hurrek ez ezik 3 urtekoak egokitze prozesu bat beharko dute. Egokitze prozesuak haurren ezaugarriak eta familien premiak uztartuko ditu. Ordu kopuru murriztua eta txandakatuaren orde, ordutegi malgu eta adostuaren apustua egingo da.
- d. Haur Hezkuntzako talde guztien ordutegia ez da zergatik berdina izan behar, hori kasuan kasuko egoerak markatuko du. Adibidez:
 - Haur talde batzuk eskolan egon daitezke eta beste batzuk eskolaz kanpo (egunero edo aldizka).
 - Batzuk ordu batzuetan sartzen eta irteten dira, eta besteak, beste batzuetan.
 - Jatordua ere sarreraren arabera mailakatu daiteke (geletan janda).
- e. Bazkal osteko loa, etxean egiteko aukera eskainiko da.

9.- HAURTALDEAK

Taldeko haur kopurua ziurtasun distantziarren araberakoa izango da hala ere, ez da ahaztu behar adin bakoitzean ohiko hezitzaile-tutorearen taldea. Taldea osatzerakoan adina ez da izango eragozpena. Erabiliko diren irizpideak ohiko baldintzak ez ezik, egungo egoerarenak ere kontuan hartuko ditu, besteak beste:

- a. Gehiengo haur kopurua.
- b. Eskolaren erabaki pedagogikoa (adin nahasketa bai/ez).
- c. Familia bereko haurrak talde berdinean.
- d. Taldeak egiterakoan, ahal dela, auzo/zonalde berdineko haurrak kontuan izatea.
- e. Baita haurren kale harremanak kontuan hartzea.
- f. Jantokira gelditzen direnak edota garraiatuak.

Kontuan izan, pertsonok berez garelako sozialak eta taldea soziabilizatorako, talde pertenezko eta haurraren nortasuna eta identiterako garrantzitsua dela. Taldearen kohesioa eta konexioa lehenetsiko da ahal den neurrian, segurtasun afektiboa, atxikimendua eta harremanak, besteak beste.

10.- LAGUNTZA ESKE.

Atal honetan erantzun beharreko lehen galdera hau da: zertarako behar dut laguntza? Horrela laguntza beharrak identifikatuko dira eta beraien zehaztapena ahalbidetuko da. Ondoren laguntza premien sailkapena egingo da, garrantziari eta lehentasunari esana eginez eta, ahal den neurrian, urgentziari tarterik utzi gabe.

Egoerari aurrea hartzea ezin bestekoa da, egin behar den lehena da eta sasoz egitekoa. Horrela, nori, zer, zertarako eskatu identifikatuko da, eta ondoren noiz, erabakitzea tokatzen da.

ZERTARAKO behar dut laguntza	NOREN laguntza behar dut	ZERTAN behar dut laguntza	NOIZ behar dut laguntza

Beharrezkoa den laguntza guztia eskatu behar da, baina garrantzitsua da era argian eta antolatuan egitea. Sarritan gehiago ez da hoberenaren lagun, kontuan hartu hurrengoak:

- a. Zertarako behar duzun laguntza definitu.
- b. Nori eskatuko diozun laguntza argi izan (erakundea eta pertsona).
- c. Zertan behar duzun laguntza eta zer espero duzun argi azaldu.
- d. Laguntzen kronologia egin, lehenak hasieran egiteko.
- e. Laguntza berbera ez eskatu pertsona ezberdinei era sakabanatuan.
- f. Laguntza erabili xedeen mesedetan.
- g. Laguntzaz baliatu eta laguntza eskertu.

Laguntza eske joan zaitezkeen eta, agian, laguntzeko prest aurkituko dituzunak:

- a. Zure lankideak.
- b. Eskola Ikasleen Guraso Elkartea.
- c. Eskola Komunitatea.
- d. Herriko Udal Zerbitzuak.
- e. Herriko Osasun Zerbitzua.
- f. Zure eskualdeko Berritzegunea.
- g. Zure Barrutiko Ikuskaritza.
- h. Herriko edo eskualdeko Erakundeak.
- i. ...

11-. LOA ETA DESKANTSUA

Haurra eskolan lotan geratu beharko balitz, jarraian aipatutako puntuak kontuan izango dira:

- Ezinbestean antolatuko da nork prestatuko duen lotarako espazioa, lo egin baino lehen eta lo egin ostean.
- Lo egin baino lehen, ohetxoan arteko ezarritako ziurtasun distantzia bermatuko da eta haur baten burukoa beste haurraren oinaren parean jarriko da.
- Espazioak bentilazioa izango du (ez da zertan iluntasun absolutuan lo egin beharrik, egunez egiten den lokuluxka da, ez da gaua), haurraren atsedena bermatzeko baldintza egokiak zainduko dira. Lo egin ostean, espazioa ondo aireztatuko da, ohetxoak garbitu beharko dira eta beharra ikusiz gero, egunero etxera eraman eta ekarri estalkia.
- Haurra lotarako prestatuko duen hezitzailea zein izango den aldeztatik zehazturik izango dugu.

Egunero protokolo berbera erabiliko dugu hurrekin ongizatea bermatzeko: zaintza, higiena, aukerak ematea... goxotasunez eskainiko da eta beti berdin egiteak haurrak aurreikuspena izateaz gain, segurtasun afektiboa eta kokapenean lagunduko dio, besteak beste. Hau guztia bermatuko da. Hau horrela, lotarako prestatu duen pertsona esnatzean ere bertan egotea beraien ongizate eta segurtasunerako garrantzitsua da.

Nork prestatuko du lotarako lekua.	Nork eta zein esku hartzarekin prestatuko du lotarako haurra (aurretik eta ondoren)	Lotan dauden bitartean nor egongo da	Esnatze osteko ohearen atonketa

12.- HEZITZAILE TALDEAREN ETA HEZITZAILE BERAREN ZAINZA.

Hezitzaileak eta hezitzaile taldeak bere ongizatea eta zaintza bermatzeari lekua eta momentua emango dio. Behar, nahi eta eskaintzei momentua eta tokia ematea aproposa da. Eskola jarduna hasi aurretik, hezitzaile taldea elkartu eta guneari hasiera emateko hausnarketa egitea garrantzitsua da.

- Nola sentitzen naiz?
- Nola sentitzen gara?
- Norbaitek ezer adierazi nahi du?
- Zeintzuk dira eguneroko egitekoak?
- ...

Jarduna amaitzean berriz elkartu egunaren errelatoa egiteko. Itxi eguna eta norberaren zaintza ere kontuan izatea gomendagarri da.

13.-IRAILEAN EDOTA KONFINAMENDUTIK ITZULTZEAN EGINBEHARREKOAK.

Iraileko edo konfinamendutik itzultzerako zereginen artean honakoei begirune berezia jarriko zaie:

a. Haurrak eskolatu aurretik egitekoak:

- Familiekin eta hurrekin lehen egunean kontaktuan jarri eta oinarrizko informazioa gaurkotu edo bildu, kasuan kasukoa.
- Hurrengo egunetan informazio helaraziko zaiela komunikatu.
- Familientzat oinarrizko informazio/formazioa antolatu (zer komunikatu, nork eta deialdia).
- Informazio jaso eta ulertu dutela bermatu.
- Iraileko programazioa egin b. atala kontuan harturik.

b. Haurrak eskolaratzen direnekoak:

- Harrera lasaia eta goxoa egin.
- Hasieratik protokoloan jarrita dagoena egiten hasi (sarrera, zirkulazioa, eskuak garbitu...)
- Haurren segurtasun afektiboa jardueraren muina izango da. Haurrak harreman afektibo eta kalitatezkoak behar dituzte zaintzen eta babesten dituzten pertsonekin.
- Hasierako harremanak ongizatea, konfiantza eta segurtasun sentimenduak sorrarazteko balioko dute eta atxikimendu figura ezartzeko erabiliko dira.
- Konfiantza eta segurtasuneko testuingurua sortzeko ahalegin berezia egingo da. Horrela, hurrek beraien buruarekiko konfiantza eskuratzeko aukera eskaintzen zaie.
- Desberdintasun eta diferentzia indibidualak modu inklusiboan ezagutu, errespetatu, onartu eta balioetsiko dira.
- Arretaz begiratuko da zer berariazko beharizan biologiko eta psikosozial izan ditzaketen hurrek, garaiz antzemateko eta identifikatzeko. Horrek familia eta eskolaren arteko lankidetzeta estua behar du, jardun irizpide komunak erabilita.
- Hezkuntza ereduak ezin da izan “denak aldi berean gauza bera egiten” erakoa, eta bai aniztasuna errespetatu eta zaintza ematen diona, garapen mailak anitzak direlako eta baita erritmo biologikoak, familia kulturak, ikasteko estiloak, beharizanak, interesak...

14.-HEZITZAILE TALDEAREN ESKU-HARTZE ESTILOA.

Orain inoiz baino gehiago, esku-hartzearen estiloak elkarlana lehenetsi behar du. Egoera honetan, kezkak konpartitu behar dira, etengabe aztertu behar dira jokabide moduak, egoerak ulertu eta, beharrezkoa baldin bada, bestelako elementuak barneratu eta aldaketak egin behar dira.

Eskolako hezitzaileek konpromiso handia izan behar dute beraiei dagokien taldearekin, garbi izan behar dute taldeak zer esparru konpartitzen duen eta horren arabera jokatu. Horretarako, ondo ezagutu behar dira haurren gaitasunak eta ahalmenak, haien beharrezkoak, garapen bilakaera...

Aprendizaiak egitura globala izan behar du eta, aldez aurretik, antolatuta eta planifikatuta egongo da, baina, era berean, jardun espontaneoak egiteko, eguneroko bizitzako gauzak deskubritzeko eta, besteak beste, jakin mina pizteko aukera eman behar du.

Azken baten, esku-hartzeak honakoak bermatu behar ditu:

- Behaketatik abiatuta, arretaz entzun behar da, eta beharrezkoa denean soilik esku-hartu behar da.
- Proposamen irekiak egin behar dira, jarduera sortzailek bultzatu eta pentsamenduaren dimentsio guztiak piztuko dituztenak.
- Ingurune eta egoera askotariko testuinguruak eskainiko dira eta askatasunez hautatzeko aukera eman behar dutenak.

15.-EBALUAZIOA (PROZESUAREN BEHAKETA BEZALA).

Hezkuntza prozesuaren elementuetako bat da ebaluazioa, eta bere helburua prozesu hori bera eta hezkuntza kalitatea hobetzea da.

Ebaluazioa hezkuntza jarduna hobetzeko prozesua den neurrian, dinamikoa, jarraitua eta familiarekin partekatua izan behar du. Ebaluazioari ekiteko ondo ezagutu behar dira haurrak, aprendizaiak prozesua zuzendu, bideratu eta doitzeko.

Hezitzaile taldeak, beraien lanaren plangintza egitean, hasierako ebaluazio bat izan behar du abiapuntu. Haur bakoitzaren egoera pertsona eta sozialari buruzko informazioa bildu behar du hasierako ebaluazio horrek, bai eta haurraren garapena bultzatzeko egingo diren esku-hartzeak bideratzen lagun dezaketen datu guztiak ere.

Behaketa zuzena eta sistematikoa da ebaluazio tresna egokiena. Ebaluazio irizipide eta lorpen adierazle argiak, behatu eta erregistratzeko modukoak, adostu behar dira, jarraibide edo ildo batzuk ezarriko dituztenak.

16.-ESKOLARA PRESENTZIALKI ETORTZEA.

Irailean zer gertatuko den aurreikustea da egun, egin behar duguna. Beraz, hiru egoera ezberdinekin egin dezakegu topo (salbuespen egoera batean egotea, albuespen egoera batean egotea baina baimen batzuekin edo inongo albuespen neurririk gabe egotea), bai irailean, bai eta datorren ikasturtean zehar ere. Hori horrela, egoera horiek aintzat hartu, irudikatu eta diseinatzeak gerta daitekeenaren aurrean planifikatuta eta aurreikusita izateak lagunduko digu.

Egoera honetan, haurrei eta familiei harrera goxo eta duina eskaintzea izango da lehentasunetako bat. Azken hilabeteetan eskolara etorri ez, eta oraingo honetan datozenei segurtasun afektiboa, zaintza bere osotasunean, denbora eta espazioa eskainiko zaizkie. Beraiek (haur zein familiak) lekua hartu eta kokatu daitezzen bai eta talde pertinentziak ematen duen segurtasun, indarra eta babesa sentitu dezaten.

Eskola jarduna, naturaltasunez biziko da egoera honetan. Segurtasun afektiboa, zaintza bere osotasunean, garapeneko autonomia, inklusioa, aniztasunaren zaintza, sormena, kritikotasuna, ekintzailatasuna, taldekidea, taldekidea aktiboa eta norbera dena izateko eskubidea bizkarhezur izanda, bere ongizate fisiko eta psikikoa bermatu, 237/2015 Dekretua ahalbidetuko da, haurraren garapen osoa eta orekatua lortze aldera. Horretarako, geroago dauden orientabideak kontuan hartuko dira.

17.-KONFINAMENDU SALBUESPEN EGOERAN EGOTEA.

Egoera honetan, haurrei eta familiei arreta eta akonpainamendu goxoa eta duina eskaintzea izango da lehentasuna. Eskolara itzuli eta berriz ere etxeratu beharko balitz segurtasun afektiboa, zaintza bere osotasunean, denbora eta espazio birtuala eskainiko dira, besteak beste.

Konfinamendu egoera berrira edo berrietara itzultzen garen aldiro begirune berezia jarri behar zaio komunikazioari, bai familiekiko komunikazioari bai haurrekin izango denari. Komunikazio kanalak irekiak mantentzeko ahalegin berezia egin behar da, norbanako guneak eta talde guneak tartekatuko dira.

Haurrekin mantenduko den banakako komunikazioa zuzena, laburra eta egoerak horrela eskatzen duenean, egunerokoa izango da. Adibidez: egun on!, zer moduz zaude?, nola egingo duzu lo?, zer gosaldu duzu?, norekin zaude etxean?...



Talde komunikaziorako espazio birtuala sortuko da teknologien bidez. Komunikazio hau ere zuzena, ahal den heinean eta ahal bada, egunerokoa eta ordu berdinean egingo da. Adibidez: agurra, gertaeren kontaketa, abisuak ematea, ipuin kontaketa, ipuin irakurketa, abestiak, bertsoak, elkarrizketa eta solasaldiak, jostailu erakusketa...

Familiekin berariazko komunikazioa egituratuko da, beraiek izango baitira hezitzaile rola beteko dutenak. Familien ongizatea kontuan hartuko da eta arretaz entzungo zaie eta lasaitasunekin emango zaizkie orientabideak eta gomendioak. Ezer ez da jakintzat hartuko eta emango. Kasuan kasuko premiek jarriko dute komunikaziorako maiztasuna, baina inoiz ere ez dira hamabost egun baino gehiago pasako komunikaziorik gabe.

Oharra: trataera berdina izango du banakako konfinamendua bada ere.

Egoera honetan ere, segurtasun afetkiboa, zaintza bere osotasunean, garapeneko autonomia, inklusioa, aniztasunaren zaintza, sormena, kritikotasuna, ekintzailetasuna, taldekidea, taldekidea aktiboa eta norbera dena izateko eskubidea bizkarhezur izanda, bere ongizate fisiko eta psikikoa bermatu, 237/2015 Dekretua ahalbidetuko da, haurren garapen osoa eta orekatua lortze aldera. Horretarako, geroago dauden orientabideak kontuan hartuko dira.